

3.2 GAIAREN LANKETA

> Elikagaiak: errezeta liburua



- Airamen hozkailua

Helburuak

- Elikagaien gaineko hiztegia jasotzea.

Prozedura

- **Lehendabizi**, umeei fitxa bana eman eta esan Airamen sukaldeko hozkailua dela.
- Ume bakoitzak, zenbakiaren ondoan, dagokion elikagaiaren izena idatzi. (Kontuan hartu narrazioa gaien dendekin batera hainbat elikagai landu direla).
- **Jarraian**, ume bakoitzak bere fitxa betetzen duenean, denen artean, hutsune guztiak bete.
- **Bukatzeko**, erakutsi umeei argazki-albumeko irudiak, falta diren elikagaien hutsuneak bete eta hiztegi-koadernoan elikagai bakoitzari dagokion izena idatzi.